

«Santu Gixajoak»!

San Jose eguneko arratsaldea da. Aurten jaiegun barik itxi daben santua berau. Gure Txomin ez dago San Jose eguna bertan bera izteko. Ez orixe! Zigarro puru ederra ketan atzamar artean eta esku-makilla dotorea bestean, or dator tente ta zoli.

— Zer, Txomin, jai-giroan, ala? Jakingo dozu, gaur ez dala jaiegun, ezta?

— Ni bai, Kelmen jauna; eta zeu ez ala? San Jose egun aundia izan gaur, eta ori da patxadea!

— Bai, san Jose bai, eta egutegian orxe dauka egun baxotzak bere santua edo santu-sail aundi bat. Batzuetan erreskadea malkala!

— Zer, Kelmen jauna, edozelan be, San Jose ez dozu edozein santugaz bat egingo, orraitiaño?

— Ez, bai zera, Txomin! San Jose, San Jose da, zuk, nik eta beste askok maite maite dogun santua. Eta Balentzian, Corte Inglés eta olakoetan zer esanik be ez.

— Ez, Kelmen jauna, ori ez da olan. Zuk dana nastuten dozu. Eleizea be lotan dagoala dirudi santuen alde geiago ez egiteko.

— Zer geiago egin bear dau, ba, santuok bear dan lez zaintzeko? Geiago ipiñi? Eleizkizun ederragoak antolatu? Ara, Txomin laguna: Leenago, Eleizeak ipinten ebazan milla ta bost santu ta jaiegun, eta erriak eta orduko gizarteak aintzat artzen ebazan: danak eleizara, gairerako lan ta arazo guztiak alde batera itxiaz. Eta gaur, zeuk be ondo dakinenez, ez dau Eleizeak aginduten mun-

duan; gizarteak berak izendatzen dauz bere lege, jaiegun ta abar.

— Bai, ori begibistan dago: santuen jaiak gitxitu eta sasi-jaiegunak ugatuaz doaz. Bateko Konstituziño eguna, beste teko zugatz-eguna, biar askatasunaren eguna, eta zenbat olako.

— Kontuz, Txomin, orreik ez dira sasi-jaiegunak. Gizonak berez bear dauz atsedeen-egunak, bizitza arindu ta gozatzeko. Baita errien eta laterrien historiak be ba dauz gora aundiko jazoe-rak eta barru-barrutik eragiten deutenak erritarrei, eta legezko da erriak olakoak ospatu gura izatea. Leen be gauzak asko naastetan ziran: Pilareko Ama Birjiña, Santiago ta abar politikaz kutsutu ta egon dira, beste santurik asko jan-edanez, oitura nabarmenez eta apaindukeriz beterik egon dira. San Jose bera «aitaren eguna» dala ta, zelako sal-erosketak!

— Naiko, Kelmen jauna, naiko da. Erretolika orregaz auxe ulertuten dot nik: munduko tunante ta tratante guztiak santuekaz aprobetxau dirala.

— Óraingoan buru-buruan jo dozu untzea, Txomin. Gizonarentzat eta erriarentzat garrantzi aundiko diran arazoak, beste barik, jai egin eta ospatzeko gai dira, bitartean santu-santarik sartu barik be.

— Bai, baiña, guk kristiñauok ez dogu eskubiderik, geure santu ta guzti, geure bizitzako ta erriko gorabeera garrantzitsuak ospatzeko?

— Orixen bai, Txomin. Baiña onako au be kontuan artu egizu: % 7 (euneko

zazpi) inguru gara emen eleizkizunetan parte artzen dogunok; gaiñerako guztiak naitaez onartu bear dabez gure erlijiozko lege, jaiegun ta abar? Zeuk ondo dakizu ze jakabide artzen dauan jentiake domeketan, Aste Santuan eta osterantzeko jaietan: lanean, jan-edanetan, ara-onako ibillaldietan, santu ta eleizkizunen ardura aundi barik.

— Ori olantxe da ta, ez dago zetan ukatu. Eta guk krsitiñauok zelan bete geure fedeko eginbearrak? Dana bertan beera itxi ta beste guztiakin danetan bat egin?

— Ez, Txomin; kristiñautzat gagozani zintzoago jokatu eta atxaki barik parte artu geure eleizkizunetan; eta santubako jaiegunetan be pozik parte artu, bizitzako eta erriko poz-atsekabetan benetan tarteko izanaz.

— Olan dala, gaurtik aurrera, santu-jaiak gitxitu eta jai zibillak geitu...

— Ez dago txarto esanda, Txomin. Bakotxa bere egunean eta bere lekuan. Eleizeak be jarri bear ditu bere jaieguna, bere fedeko misterio aundiak bear dan lez ospatzeko eta fede-bizitzan biziro arrigarri izan diran seme-alaba zorionsuak goratzeko eta euren erakutsi ta laguntza ederrez indarbarritzeko. Orregaitik, gizarte barri onetan, gaurko ta bertorako diran lege ta jokabide egokienak asmatu bearra dago.

— Ori bai, Kelmen jauna; baiña ez gaur arte lez urtero kendu ta ipini jaiak, santuak eurak be zoratzeko moduan ibilliaz.

— Jakiña, leenago dana ta betiko modu baten erabagita egoanean, buruz genkian zer zelan ta noiz egin bear zan. Gaur ez da olan. Azkenaldion zaparradarik asko jausi yaku gaiñera, eta azurretaraiño sartu yaku giro barri onen eragiña. Egoaldiaren aldakeran domis-

tikun batzuk egitea, sama zarraturik sentitzea, ez da arritzekoa. Sasoiko kontua da. Bardin fede ta eleiz-bizitzan izan dogun aldaketa ikaragarri onetan be.

— Beste arazo bat be argitu gura neuke, Kelmen jauna, gaurko gai onegaz zerikusi aundia daukan gaia berau: gure auzoetako santuak, ermitak, erromeri-egunak. Oneik galtzen itxi, geratzen diran apurrak zaindu?

— Adiskide Txomin, gaurkoz naiko. Erabili dogun gai au, janari gogortxo izan da eta larregi batera artzea ez da mesedegarri izango. Urrengo baten aztertuko dogu ori be. Emen be arlo batak bestea dakar lotuta lez. Gaurkoz, on egin daiskula santu-santa saltsa onek.

*Udea urreratzean,
jaiak alkarren atzean;
santu ta santa talde aundia
danak batera alkartzean.
Danak serbidu eziñik gabiltz
komediante antzean!*

*Kristau bizitzan trakesak
geienetan aldrabesak;
fedea berantz, baiña gorantza
santu-jaien interesak...
Santuen barri ondotxo daki
lendik Corte Ingelesak!*

*Onak dira errikuak
obeak erbestekuak;
ondoren datoz ipiñiala
«errepetiziñokuak»
Baiña danetan onenak dira
«zubia» egitekuak!!!*

*Gu bai gara santu-zale
bardin baserri ta kale;
ez mezarik ta ez «prozeziño»
baiña juergan jo ta dale...
Or konpon San Blas, guk probetxua
atera dogu ta, bale!*